

## **HONDAKIN BERDEAK BIRRINDU-ZUNTZGABETZEKO ETA GARRAIATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA**

### **1 HELBURUA**

Baldintza agiri honen helburua GHKk behar dituen lorezaintzako hondakin berdeak (inausketako materiala eta belarra) birrintzeko eta garraiatzeko zerbitzuak deskribatzea da.

### **2 BEHAR DIREN ZERBITZUAK**

#### **HONDAKIN BERDEA BIRRINTZEA**

Lorezaintzako hondakin berdeak birrindu-zuntzgabetuko dira, esaterako belarra eta belar-sastrakak kentzeko eta inauste lanetako materiala, gehienez ere 25-30 cm-koa. Horretarako birrintze baliabide egokiak erabiliko dira, material birrindu-zuntzgabetua 80 eta 250 mm bitartekoa izan dadin.

#### **HONDAKIN BERDE BIRRINDUA GARRAIATZEA**

Lizitatuak garraiatu beharko ditu behar dituen baliabide mekanikoak, hondakin berdea ondoren deskribatzen diren lekuetan birrintzeko-zuntzgabetzeko, eta hondakin berdea birrinduta dagoenean berak garraiatu beharko du GHKren teknikariek adierazten duten lekura. Hondakin berde zuntzgabetuaren garraioa optimizatu egingo da uneoro, bai errepide-trenez bai atoiz eginez.

#### **2.A.- HONDAKIN BERDEA BIRRINTZEA ETA GARRAIATZEA DEBAGOIENA MANKOMUNITATEAN**

Zerbitzu honen barnean, esleipendunak hondakin berdea birrindu eta garraiatu egin beharko du, Arrasateko Akeiko plantatik edota Bergarako Epeleko konpostatze plantatik Azpeitiko Lapatxeko konpostatze plantaraino edo GHKren teknikariek adierazten duten lekuraino.

Birrintze eta garraioaren maiztasuna GHKren teknikariek eskatuaren araberakoa izango da. Eta Akeiko plantako inausketako materialak biltzeko instalazioen betetze mailaren arabera egingo dira eskaerak. Urtean 700 tona birrinduko dira, gutxi gorabehera. Gutxi gorabeherako kopurua izaki, GHKk bere jarduerarako behar diren zerbitzuak kontratatuko ditu soilik.

Birrintzeko metatutako gutxieneko kantitatea 90 tona ingurukoa izango da.

## **2.B.- HONDAKIN BERDEA BIRRINTZEA ETA GARRAIATZEA LAPATXEKO KONPOSTATZE PLANTAKO INSTALAZIOETAN**

Zerbitzu honen barnean, hondakin berdea, inausketakoa eta belarra, Lapatxeko konpostatze plantako instalazioetan birrintzea eta GHKren teknikariek adierazten duten lekura garraiatzea sartuko da.

Birrintzearen maiztasuna GHKren teknikariek eskatuaren araberakoa izango da. Eta Lapatxeko konpostatze plantako hondakin berdea biltzeko eremuaren betetze mailaren arabera egingo dira eskaerak. Gutxi gorabehera 800 tona birrinduko dira urtean. Adierazten den moduan, kantitate hau gutxi gorabeherakoa da, eta GHKk beharrezko deritzon kantitatea kontratatu beharko du, ez besterik.

## **2.C.- HONDAKIN BERDEA BIRRINTZEA ETA GARRAIATZEA URTETAKO ZABORTEGIAN (UROLA KOSTA MANKOMUNITATEA)**

Zerbitzu honen barnean, esleipendunak hondakin berdea birrindu eta garraiatu egin beharko du, Zarauzko Urtetako zabortegetik Azpeitiko Lapatxeko konpostatze plantaraino edo GHKren teknikariek adierazten duten lekuraino.

Birrintze eta garraioaren maiztasuna GHKren teknikariek eskatuaren araberakoa izango da. Eta inausketako materialak biltzeko instalazioen betetze mailaren arabera egingo dira eskaerak. Urtean 300 tona birrinduko dira, gutxi gorabehera. Gutxi gorabeherako kopurua izanik, GHKk bere jarduerarako behar diren zerbitzuak kontratatuko ditu soilik.

## **2.D.- HONDAKIN BERDEA BIRRINTZEA ETA GARRAIATZEA EZKIO-ITSASON (SASIETA MANKOMUNITATEA)**

Zerbitzu honen barnean, esleipendunak hondakin berdea birrindu eta garraiatu egin beharko du, Ezkio-Itsasoko zelaigunetik Azpeitiko Lapatxeko konpostatze plantaraino edo GHKren teknikariek adierazten duten lekuraino.

Birrintze eta garraioaren maiztasuna GHKren teknikariek eskatuaren araberakoa izango da. Eta inausketako materialak biltzeko instalazioen betetze mailaren arabera egingo dira eskaerak. Urtean 300 tona birrinduko dira, gutxi gorabehera. Gutxi gorabeherako kopurua izaki, GHKk bere jarduerarako behar diren zerbitzuak kontratatuko ditu soilik.

Birrintzeko metatutako gutxieneko kantitatea 90 tona ingurukoa izango da.

## **2.E.- HONDAKIN BERDEA BIRRINTZEA ETA GARRAIATZEA SAN MARKO MANKOMUNITATEAN**

Zerbitzu honen barnean, esleipendunak hondakin berdea birrindu eta garraiatu egin beharko du, San Marko Mankomunitatetik Azpeitiko Lapatxeko konpostatze plantaraino edo GHKren teknikariek adierazten duten lekuraino.

Birrintze eta garraioaren maiztasuna GHKren teknikariek eskatuaren araberakoa izango da. Eta inausketako materialak biltzeko instalazioen betetze mailaren arabera egingo dira eskaerak. Urtean 1.500 tona birrinduko dira, gutxi gorabehera. Gutxi gorabeherako kopurua izaki, GHKk bere jarduerarako behar diren zerbitzuak kontratatuko ditu soilik.

## **3 GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MEKANIKOAK**

Lizitatzailleak jarriko ditu inausketako materiala birrintzeko eta garraiatzeko behar dituen pertsonal aldetiko zein mekanika aldetiko beharrezko baliabide guztiak, hau da, trakzio-burua, birrintzeko makina, kutxak.

Garraioa errepide-trenez egingo da. Fakturaziorako erreferentzia GHKk adierazitako baskuletan egindako pisatzeak izango dira. Inausketako materiala birrintzen den instalazioetan, baskularik baldin badago, kamioi guztiak pisatuko dira, kanpora abiatu aurretik.

Birrintze lana hasia denean, inausketako material birrindu guztia jaso eta garbi utziko da inausketako materiala metatzeko eremu osoa. GHKk kontratistari eskatu ahal izango dio inausketako material birrinduaren parte bat instalazioetan bertan biltzea.

Birrintze eta garraio zerbitzua egiteko, gehienez ere 4 egun baliodun erabiliko dira, GHKren zerbitzu teknikoek zerbitzua eskatzen duten datatik kontaktzen hasita. Zerbitzurako eskaera telefono bidez zein e-mailez egin ahal izango da.

Enpresa esleipendunak harremanetarako pertsona baten izena emango du, erabakiak hartzeko ahalmena duen baten izena alegia. Hauxe izango da G.H.K., S.A.rekiko solaskidea, hornidura prozesuan zehar sortzen den edozein gorabehera bideratzeko unean.

## 4. BIRRINDU BEHAR DEN INAUSTEKO MATERIALAREN KOKAPENA ETA LANDARE HONDAR BIRRINDU-ZUNTZGABETUA GARRAIATU BEHAR DEN LEKUAK

Inausketako material birrinduaren entrega Lapatxeko konpostatze plantan egingo da, Azpeitian, astelehenetik ostiralera bitartean, 08:00etatik 13:00ak eta 15:00etatik 17:00ak arteko ordutegian, edo GHKren teknikariek adierazten duten lekuan bestela.

Fakturaziora begira, erreferentzia finkotzat hartuko dira taulan adierazten diren kilometroak.

	LAPATX (AZPEITIA)	EPELE (BERGARA)
<b>URTETA (ZARAUTZ)</b>	26,2 km	51,7 km
<b>EZKIO-ITSASO</b>	27 km	24,7 km
<b>AKEI TE (ARRASATE)</b>	42,9 km	-
<b>SM TE (DONOSTIA)</b>	48,3 km	74 km
<b>LAPATX (AZPEITIA)</b>	-	41,3 km

GHKk aldatu ahal izango ditu birrindu behar den inausketako materialaren kokapenak eta material jada birrinduaren entregarako lekuak. Beste lekuren bat egonez gero, eta leku horretan inausketako materiala birrindu zein bertara garraiatu behar bada, GHKk definituko du zerbitzua eman beharreko bi puntuen artean dagoen distantzia.

## 5. DERRIGORREZKO ESKAKIZUN TEKNIKOAK

Esleipendunak beharrezko material guztiak jarri beharko ditu, zerbitzua behar bezala ematearren. Zerbitzua ematera bideratutako baliabide horiek uneoro ziurtatuko dute zerbitzu prestazioa, laneko plana puntualtasunez betetzeko eta sortzen diren ustekabekoak bideratzeko behar besteko marjinaz, betiere baldintza teknikoan agiri honetan finkatutako gutxienekoak betez.

Lizitatuzaileek, egiten dituzten eskaintzetan, adierazi egingo dute zer material mugikor erabiliko duten zerbitzuetan, argi eta garbi azalduz zer jotzen duten beharrezko material zerbitzuak behar bezala emateko, eta zer jotzen duten erreserbako material, hau da, normalean zerbitzuan ez badago ere zerbitzurako izango dena bai matxuraren bat gertatzen denean, bai noizbehinka zerbitzua sendotu beharra dagoenean.

Erabiltzeko material mugikorra zerbitzuaren eskakizunetarako egokiena izango da. Zerbitzurako material guztia deskribatu beharko dute lizitatuzaileek, horren gaineko ezagutzarik sakonena izatearren beharrezko irizitako datu guztiak emanaz horretarako.

Esleipendunak bete egin beharko du zerbitzu hauetara bideratzen den material guztiaren prebentziozko mantentze-plana; honetan adierazten dira koipeztatze, azterketa, aldian-aldian egin beharreko eta abarrei buruzkoak.

Zerbitzuari atxikitako ibilgailu guztiek, arinek zein astunek, Industriako Lurralde Zuzendaritzaren aldiari aldiko azterketa igaro behar dutenek, indarrean dagoen araudiaren arabera egingo dute azterketa hori.

Trafikoaren, lanaren edo ingurumenaren arloan eskumena duen agintaritzak salatzen duen gorabehera edo arau-hauste oro kontratistaren erantzukizun eskusibokoa izango da, GHK kontratatutako jardueraren esparruan. GHK bera erantzukizun horretatik kanpo geratuko da.

## **6. AURKEZTU BEHARREKO INFORMAZIO TEKNIKOA**

### **6.1. ZARATA MAILA**

Ibilgailuaren dokumentazio teknikoak erantsi behar da, indarrean dagoen Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean zarata-emisioari dagokionez jasotzen den araudia betetzen duela frogatzen duena. Proposatzen den birrintzeko makinari ere aplikatuko zaio alderdi hau. Diseinua dela eta maila hori gainditzen bada, neurri zuzentzaileak edo makina erabiltzen duten langileentzat zein haren eragina jasan dezaketen pertsonentzat proposatutako banakako babes ekipoak aurkeztuko dira.

### **6.2. KARGAK ETA NEURRIAK**

Trafikoak errepideko garraiorako finkatutako 4 m-ko gehienezko altuera errespetatzen duten ekipoak aukeratu beharko dira. Esleipendunek goitik behera errespetatu beharko dituzte trafikoaren eta errepidezko garraioaren arloan indarrean dauden araudiak, derrigorrezko dokumentazioak izango dituzte eta horietan ezartzen diren baldintzak beteko dituzte, kargak behar bezala lotuta eramango dituzte, eta deskargarako ateak finkatuko, karga askatzeagatik istripurik sor ez dadin.

Baldintza agiri honetan adierazten den moduan, ibilgailuek behar besteko potentzia izango dute, baldintza agiri honek eskatzen duen gutxienekoa errespetatuta betiere.

Fabrikatzailearen markaren kontzesionario ofizialak emandako ziurtagiria izango dute, eta honetan jasota egongo dira proposatzen den/diren ibilgailu(ar)en ezaugarri teknikoak.

### **6.3. MOTORRA**

Ibilgailuaren fitxa teknikoak, ibilgailuaren hainbat ezaugarri ziurtatzearen, honakoak:

- Diesela.
- Gutxienez atmosferarako emisioei buruzko EURO V araudia betetzea.

Fabrikatzailearen kontzesionarioak emandako ziurtagiria aurkeztuko da.

### **6.4. BALAZTA SISTEMA**

Ziurtatu egin behar da ibilgailuak badituela honakoak:

- Retarder/intarder balazta  
edota
- ABS sistema.

Fabrikatzailearen kontzesionarioak emandako ziurtagiria aurkeztuko da.

## **7. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA**

Enpresa esleipendunak bete egin beharko ditu legeek aurreikusten dituzten obligazio guztiak. Lege horiek, zehazki, honakoak dira: Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legea, azaroaren 8koa (B.O.E., 269 zk., 1995eko azaroaren 10a); 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duena (B.O.E., 27 zk., 1997ko urtarrilaren 31); eta laneko segurtasunarekin eta osasunarekin lotutako bestelako guztiak:

31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.

54/2003 Legea, abenduaren 12koa, Laneko Arriskuen Prebentzioaren arau esparrua aldatzekoa.

39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzekoa.

Ondorioz, enpresa esleipendunaren obligazioa izango dira honakoak:

- Langileen segurtasuna eta osasuna bermatzea.
- Laneko Arriskuen Prebentzioa egitea, beharrezko neurri guztiak hartuz horretarako.
- Laneko arriskuak ebaluatzea.
- Prebentzio lanak planifikatzea, arriskuen ebaluazioaren emaitzetatik abiatuta.
- Laneko baliabideek langileen segurtasuna bermatzen dutela ziurtatzea.

- Langileei beharrezko babes baliabideak ematea, egin beharreko lanerako egokiak betiere, arriskuak behar beste saihesterik edo mugatzerik ez dagoenean.
- Langileei informazio egokia ematea lanean diren arriskuei, aplika daitezkeen babes neurri eta jardueri, eta hartzen diren larrialdiko neurriei buruz.
- Langileei kontsulta egitea eta laneko segurtasunari eta osasunari eragiten dieten kontu guztietan parte har dezaten uztea.
- Langile bakoitzak prebentzio arloan prestakuntza egokia jasotzen duela bermatzea.
- Informazioa ematea eta neurriak hartzea, langileak arrisku larri eta berehalako baten aurrean egon daitezkeenean.
- Langileen osasunaren aldiak aldiko mediku-zaintza bermatzea.
- Langile bat edo batzuk izendatzea, arrisku profesionalen prebentzioaz arduratzeko, prebentzio zerbitzu bat eratzeko edo zerbitzu hori erakunde espezializatu batekin hitzartzeko.

GHKren prebentzio zerbitzuei eman beharko diote arlo honi dagokionez eskatzen zaien dokumentazio guztia, esleipendunak dituen obligazioak betetzen ote diren jarraipena egitearren.

## **8 ESKAINTZA AURKEZTEA**

Kaudimen teknikoari dagokionez aurkeztu beharreko dokumentazioaren A kartazalean, lizitatuak bakoitzak, gutxienez, idatziz eta modu grafikoan, honakoak sartu beharko ditu:

- birrintzeko makinaren ezaugarri teknikoak, modeloa ere aipatuta, erreserbako makinak ere badituela adierazita.
- Baldintza Teknikoen Agiri honetako 2., 5. eta 6. puntuetan zehaztutakoa betetzearren GHKren eskura jarriko dituen garraio bideen ezaugarriak.